

**Gaiak:**

**1. Beko kale: Elordiko zelaia**

- Hiri-lurra izateko aldaketa egiten den bitartean, proiektua idaztea ere martxan jartzeko modua aztertu da. Plano batzuk egin dira eta beko-kale eta errepidearen arteko loturari ematen zaio lehentasuna.

**2. Frontoiaren irisgarritasuna**

- Parte-hartze prozesurako beste aukera bat ere jorratzea erabaki da, parketik, aldagelen barrena sarrera egitekoarena, beste 4-ei gehitzeko.
- Lanak egiteko laguntza eskaera egin da, baina oraindik ez dugu erantzunik.

**3. Ur hornidura:**

- Baserrietako ur-horniduraren egoera eta Goimenerako eskaera aztertu dira. Ur-hornidura egonkortzeko saiakera egingo da.

**4. Natura eta Ingurumena**

- Landaketa berria bukatu da eta Aldundiak lan hauetarako ematen duen dirulaguntza eskatu ere.

**5. Hondakin organikoen tratamendua**

- Hondakin organikoa herrian bertan kudeatzeko behar den txostena web orrian eta paperean eskura jarriko da.
- Konpostguneak erabiltzeko araudia prestatu da eta bere izapidetza martxan jarriko da.

**6. Herri bideak:**

- Herri-bideetako ordenantza berria argitaratu da eta indarrean dago.
- Herri bideen inbentario eta azterketa aurten egingo da. Zeuden aurrekontuetatik SENDO, S.L.-egindakoa aukeratu da: 13.500 € + BEZ.
- Mantentze lanetarako akordioa lortu da. Hosto-biltzailea moldatu eta

probatu beharreen dago.

- Biondak jartzeko eskaera egiteko epea bukatu berria da- Jasotako eskarien arteko lehentasunak finkatuko dira.

## **7. Bizikleten gordailua**

- Lanak bukatzen, datorren asterako martxan izatea espero da.